


Munduko ibaien zatiketa larria dela ohartarazi dute



Munduko ibaien lehenengo ebaluazio globala egin du McGill Unibertsitateko eta World Wildlife Fund (WWF) erakundeko ikertzaile-talde handi batek. Satelite-datuez baliatuta, isuri askeko ibaien kokapenaren eta hedaduraren berri eman dute, *Nature* aldizkarian. Emaitzen arabera, munduko ibai luzeenen % 37k baino ez du isuri librea, iturburutik itsasoraino.

Ikertzaileek adierazi dute presak eta urtegiak direla ibaien jarraitutasuna eta ibaien arteko lotura galtzearen eragile nagusiak. Munduan 60.000 inguru presa handi daudela kalkulatu dute, eta beste 3.700 presa hidroelektriko eraikitze bidean. Ikertzaileen esanetan, libreki mugitzeko gaitasunari esker gertatzen dira ibaietan uraren, bizidunen, sedimentuen eta elikagai eta energiaren mugimendua eta elkartrukea. Munduko ibaiak osatzen duten sare konplexu hori, ordea, etena dago, guztiz.

Ibaiak, gure planetako odol-bideak

Erreka osasuntsuek funtzio asko betetzen dituzte: besteak beste, itsasoaren deltak mantentzen dituzten sedimentuak sortzen dituzte, etengabe. Urak libreki ibili ezin duenean, ibaiak funtzio horiek betetzeari uzten diote. Arturo Elosegi Irurtia EHuko ikertzaile eta katedradunak kezka adierazi du horren aurrean: "Presak ezartzen direnean, askoz ere sedimentu gutxiago iristen da itsasora, eta deltak desagertzen ari dira jada. Itsas arrantzako tokiak ere kaltetzen ari dira, sedimentu- eta mantengai-faltagatik". Ur gezetako biodibertsitatean ere

galera handia ekartzen dute presek, ibaiako bizidun ia guztiek behar baitituzte zatikatu gabeko ibaiak, ez migratzaileek bakarrik.

Ikasketaren arabera, Europa batatz bestekoa baino okerrago dago: 1.000 km-tik gorako ibaien % 12 besterik ez da isuri librekoa; Ipar Amerikan, % 25; Hego Amerikan, % 51; Asian, % 33; Afrikan, % 47; eta Australian, % 60. "Euskal Herrian ere oso txarra da egoera, oso zatikatuta daude ibaiak; eta, erreka txikitian, txostenean aipatzen dutena baino okerragoa da egoera", argitu du Elosegik. "Gipuzkoan 900 presatik gora dago, baina askok mendeak daramatzate erabili gabe. Eta hor daude oraindik, uraren, materiaren eta bizidunen mugimendua oztopatzen".

Ikasketaren egileek energia-iturri berriztagarrien artean eolikoa eta eguzki-energia lehenesteko proposamena egin dute, hidroelektrikoak ibai-komunitatetan sortzen dituen kalteengatik. "Norwegian energia asko lortzen dute zentral hidroelektrikoez. Gipuzkoan, ordea, 60tik gora zentral elektriko daude —ibai guztiak daude zentralerantz josita—; eta denek batera duten ekoizpen hidroelektrikoa lau aerosorgailuren adinakoa da", dio Elosegik. "Ibai guztiak txikitzen ari gara, ia ezer ez ekoizteko". ●



Albiste gehiago
webgunean